

Año LXXXI. urtea

276 - 2020

Enero-abril

Urtarrila-apirila



# Príncipe de Viana

SEPARATA

---

Nafar egileen euskarazko  
liburuak 2019an

Ángel ERRO JIMÉNEZ

---

# Sumario / Aurkibidea

## Príncipe de Viana

Año LXXXI · n.º 276 · enero-abril de 2020

LXXXI. urtea · 276. zk. · 2020ko urtarrila-apirila

### LITERATURA

La realidad literaturizada y la ira contra la religión católica y el obispo de Pamplona en el «Libro segundo» de *La familia de Errotacho*, de Pío Baroja  
Miguel Ángel García de Juan 9

---

### HISTORIA

La represión del protestantismo en el tribunal inquisitorial de Calahorra-Logroño (1550-1610)  
Marcos Gómez García 47

---

Entre España y México, la libertad. El embajador Félix Gordón Ordás y su evocación de la figura del navarro Javier Mina en el marco de la guerra civil española  
Carlos Sola Ayape, José Luis González Martínez 79

---

Un discurso inédito de Víctor Sainz de Robles en 1867  
Emilio Cervantes Ruiz de la Torre 105

---

Política social y autogobierno en el núcleo de la conspiración carlista antirrepublicana  
Manuel Martorell Pérez 133

---

La botica del monasterio cisterciense de Santa María de La Oliva (Navarra)  
Juan Manuel Garde Garde 165

---

### DERECHO / ZUZENBIDEA

Un debate sobre la Ley de 1841: Navascués, la Diputación, «El Mosquerino» y Ezquerria  
Juan Cruz Alli Aranguren 201

---

# Sumario / Aurkibidea

## LOS TRABAJOS Y LOS DÍAS DEL AÑO 2019 / 2019ko LANAK ETA EGUNAK

Tesis doctorales sobre temática navarra de ciencias humanas, sociales y jurídicas, leídas en 2019 (Según la Base de datos Teseo del Ministerio de Educación)	231
Medio siglo de <i>Fontes Linguae Vasconum</i> Ekaitz Santazilia	237
Actividades en torno al cincuenta aniversario de la revista <i>Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra</i> David Mariezkurrena	245
Autores y autoras navarras en castellano, año 2019 Mikel Zuza Viniegra	249
Nafar egileen euskarazko liburuak 2019an Ángel Erro Jiménez	253
Viento a favor: talento y carácter. Navarra en la industria audiovisual (2019) Marga Gutiérrez Díez	259
Tensión de rotura. Un panorama expositivo de 2019 Mireya Martín Larumbe	269
Hiriarte: crónica de un proyecto frustrado por una mala práctica en las políticas culturales Arantza Santesteban	281
De escalas, tiempos y cultura: grado en Historia y Patrimonio por la UPNA Fernando Mendiola Gonzalo, Miguel R. Wilhelmi	289
Investigación y difusión del patrimonio cultural navarro en la Universidad de Navarra (2019) Yolanda Cagigas Ocejo	305
Entrevista a Tomás Yerro Villanueva. Premio Príncipe de Viana de la Cultura 2019 Alicia Ezker Calvo	317
Si mi padre volviera, yo sería su escudero. Qué gran caballero era Tomás Yerro. (Discurso)	331
Currículums	337
Analytic Summary	343
Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak / Rules for the submission of originals	347

# Nafar egileen euskarazko liburuak 2019an

Ángel ERRO JIMÉNEZ

Escritor/Idazlea

[angerro@yahoo.es](mailto:angerro@yahoo.es)

DOI: <https://doi.org/10.35462/pv.276.12>

- Antoñana, Pablo, *Odola oroi* (Pamiela, 2019). Itzul.: Luis Mari Larrañaga. Narratiba itzulia  
«Pablo Antoñana aitzindariaren *Odola oroi* honetan historia unitario bat erakusten da, mende erdiz bereizitako bi gerra zibiletako, 1874ko karlistaldiko eta 1936ko gerrako antzeko bi gertakari tartekatuz».
- Arretxe, Jon, *Mesfidatu hitzez* (Erein, 2019). Narratiba  
«Abenturaren jarraipenak Parisa darama Toure [...] kamuflaturik afrikar jatorriko hainbeste jenderen artean. Lehendabiziko aldiz bere bizitzan Toure diruduna dela esan daiteke. [...] Bilatu gabe, berriz sartuko da peripezia arriskutsu batean, non bere erosotasuna eta bizitza bera ere airean jarriko duen. Argien Hiria Ilunbeltzena bihurtuko da gure detektibe igarlearentzat».
- Arrula Ruiz, Garazi, *Idea Vilariño* (Susa, 2019). Poesia itzulpena  
«Pendulua bezala dabil Idea Vilariño (Montevideo, 1920-2009). Garazi Arrula Ruizek bere itzulpen bikainean ez dio kendu bat ere indarririk, ez dio kendu bat ere zaurgarritasunik. Uruguaiko 45eko belaunaldiko idazlea izan zen Onetti, Benedetti, Vitale, Falco... horiekin guztiakin batera». Igor Estankona, *Deia*, 2019/04/13.
- Astiz, Iñigo, *Analfabetoa* (Susa, 2019). Poesia  
«Emango digu zer esanik Iñigo Astizek argitaratu berri duen poema liburuak. Bere laburrean, *Analfabetoa* hau mamitsua da, eta trinkoa, laberintikoa ia, erdi parteko pasarte batetik sartu eta berdin eramaten zaituena lehen olerki bakar soilera eta azken poemaren luze durduzagarriera. Tarteko guztiak ere bitan edo hirutan irakurtzekoak dira, hondo sakona baitaukate, azalean soilak eta zuzenak iruditu arren». Joannes Jauregi, *Berria*, 2019-06-09.

- Astiz, Iñigo, *Sandro Penna-Bilduma bat* (Farmazia Beltza, 2019). Ilustratzailea: Pan Damaris. Poesia itzulpena  
«Amodioaren poeta deitu izan zaio Sandro Penna italiarrari. Alabaina, bere poesian amodioa estuki lotuta ikus daiteke gaztetasunaren eta malenkoniaren edertasunarekin [...]. Itzulpen fina eta beharrezkoa proposatzen digu Astizek, idazle baten begiradatik gustuz osatua eta mimoz zaindua. Halakoa da baita ere argitaletxeak hartutako lana, edizioa, ilustrazioak eta hitzaurrea bikainak baitira». Irati Majuelo, *Berria*, 2020-03-15.
- Astiz, Iñigo, *Joemak eta polasak* (Elkar, 2019). Ilustratzailea: Maite Mutuberria. Poesia haur literatura  
«Jolas egiteko poema-liburu ilustratua. Ume listoentzat edo heldu tontoentzako poema liburua da hau, [...] poemaz eta ilustrazioez osatua. Jostaria eta umoretsua ez ezik, iradokitzailea eta sortzailea. Ondo pasatu eta hitzen eta ilustrazioen indar iradokitzaileaz gozatzeko».
- Balda San Juan, Nerea, *Atzerrian* (Pamiela, 2019). Narratiba  
«Nerea Balda idazleak argitaratutako lehen liburua da *Atzerrian*. Izenburuak dioen gisa, atzerrian kokatutako eleberri laburra ez ezik, atzerriari buruzko lan bat aurkezten digu. Itzultzaile gazte bat du protagonista, Euskal Herritik Londresera doana, bizi-helburutzat harturik erakunde prestigiotsu batean itzultzaile-lana lortzea. Atzerriaritze horren atzean, ordea, etxetik aldentzeko beharra eta askatasunaren bilaketa igar daitezke». Irati Majuelo, *Berria*, 2019-10-27.
- Balentzia, Fermin (askoren artean), *Vivir para cantarla / Kantuari emana* (Txalaparta, 2019). Ez fikzioa  
«Lagun talde batek erabaki du haren omenezko liburu-disko hau egitea, Ferminen bizitza, ondarea eta kantu ezagunenak bi diskotan biltzen dituen, eta horren aitzakian zenbait idazlek eta jende ezagunek testu bana idatzi diote».
- Chivite Ezkieta, Beatriz, *Mugi/atu* (Pamiela, 2019). Poesia  
«Beatriz Chivite Ezkietak izugarritzko trebetasuna du baliabide erretoriko gutxirekin poesia egiteko, “Mugi/atu” bere azken poema liburuan frogatu daitekeenez. Bertan agertzen diren testuak biluzik agertzen dira, esentzialenera laburtura, gehiegizko lanketak poesia honen izaera baliogabetu ahal balu bezala». Javier Rojo, *El Correo*, 2019/09/28.
- Diaz De Ulzurrun Sagalá, Enrike, *Iruñea* (Elkar, 2019). Ilustratzailea: Asisko Urmeneta. Ez fikzioa  
«Iruñea entzutean, berehala Sanferminak etortzen zaizkigu gogora. Baina Iruñeak beste gauza asko ere baditu jaiez gain, eta horietako batzuk biltzen ditu gida honek. Ibilbide bat proposatzen du kalez kale, plazaz plaza, txokoz txoko denetariko konutak azalduta, [...] A1, A2, B1 eta B2 mailetara egokituta».

- Diaz De Ultzurrun Sagalá, Itziar, *Louis Aragon* (Susa, 2019). Poesia itzulpena  
«Josteta dario Louis Aragonen poesia kaierari, Itziar Diez de Ultzurrun itzultzaile apartak ekarri digun honi; josteta, eta hitzen lilura, hala Aragonen irudi-kadentzia azkengabea nola Diez de Ultzurrunen itzulpen neurtuan». Joannes Jauregi, *Berria*, 2019/12/15.
- Erro, Angel, *Lerro etena (2004-2018)* (Elkar, 2019). Ez fikzioa  
«*Lerro etena* dietarioko sarreretan bizitza bezainbeste literatura topa daiteke, bata bestearengandik bereiz balitezke, behintzat. Irakurlea berehala ohartuko denez, dietarioko testuak ez daude kronologikoki ordenatuta [...]. Erroren estiloa eta ahots narratiboa dira liburuaren ezaugarriarik nabarmenenetakoak. Umorerik ez da falta dietarioa osatzen duten sarreretan, ez eta une gogorren kontakizunak ere». Peru Iparagirre, *Berria*, 2019/05/05
- Gartzandia, Alfontso, *Itsu kolpeka* (Alberdania, 2019). Narratiba  
«Alfontso Gartzandia nafarraren lehen eleberria da “Itsu kolpeka”. Urko Etxeberria du protagonista, ikertzaile izan nahiko lukeen gaztea. Ahalegin horretan dabil, baina enkargu berezi bat iristen zaionean okertuko zaio bidea». «Iruñeko kale aberatsetan eta aldiri ez hain dotoretan, astebeteko tartean, Urkori egindako enkargu bereziak eragingo duen xake-partida tragiko bat».
- Gorostazu Etxebeste, Ione, *Ez da erditzea* (Elkar, 2019). Poesia  
«Amatasunaren gaian oinarrituta, Ione Gorostazuk emakumearen paperaz hausnartzen du “Ez da erditzea” izenburuko poema liburu honetan. Ez dakit poesiaren alorrean paradigma aldaketa baten aurrean gauden, baina susmoa dut horixe gertatzen ari dela. [...] Hortik abiatuta, beste hainbat gai aipatzen dira: maitasuna, gorpuzta, sentimendu kontrajarriak, amarekiko erlazioak... honelako gaiak azaltzen dira bata bestearekin loturik, katebegiak bailiran». Javier Rojo, *El Correo*, 2019/05/11.
- Ibarra, Iñigo, *Kenavo, zaku bete urre!* (Pamiela, 2019). Haur literatura  
«Bertso zahar batzuen hariari tira eginez, gazte batzuk ezustekoz beteriko abentura dibertigarri batean murgilduko dira. Pirata baten altxorra izanen dute jo-muga. Toki arrotzetan ibiltzea tokatuko zaie, kultura berriak ezagutzea. Tartean, korapilorik latzena bezalaxe, haien arteko harremanak indartu eta sendotuko dira».
- Ijurko Irotz, Hodei, *Basatza* (Ataramiñe, 2019). Poesia  
«Espetxean 10 urte 6 hilabete eta 20 egun igaro nituen, horietako gehienak Galiziako espetxe batean pasa nituen, Pontevedrako probintzian, A Lama espetxean. Hortik liburu honen izena “BASATZA” [...]. Olerki liburu hau “egunkari olerkitu” batetatik ateratako poemekin idatzia dago».
- Jaka Garcia, Ana, *Problemak biderkatzen* (Elkar, 2019). Ilustratzailea: Iosu Mitxeleena. Haur literatura  
«Zazpi-zortzi urteko neska-mutilei zuzendutako bilduma da. Askatasunean eta aurreiritzirik gabeko haurtzaroaren aldarrikapena egingo dute neska alai, bihurri eta jakingura pareak. Noak eta Leak gogora ekarriko digute hazteak berarekin dakartzan pozak».

- Jaka Garcia, Ana, *Astindu gorputzak!* (Elkar, 2019). Ilustratzailea: Iosu Mitxelena. Haur literatura  
[Ikusi aurreko sarrera]
- Jimenez Maia, Josu, *Aingurak eta arrangurak* (Pamiela, 2019). Poesia  
«Josu Jimenez Maiak (Iruñea, 1967) hamarkada batean zehar idatzitako poemak bildu ditu Pamiela argitaletxearen eskutik plazaratu duen *Aingurak eta arraingurak* liburuan. [...] Poesia, orokorrean, baliabide ezinhobea bihurtzen du Maiak barne-barneko sentipenenen garraioirako. [...] Maiaren poesia, itzulunguruetan, hitzen bihurduan eta asoziazio paradoxikoetan (azken batean, hizkuntzan) du oinarria». Aitor Francos, *Bilbao*, 2019/03.
- Mindegia Petirena, Miren, *Maria Zugarramurdikoa eta sorginduak izan ziren emakumeak* (Nabarralde, 2019)., Ilustratzailea: Adur Larrea. Komikia  
«Mamu bat dabil European barrena. Sorginkeriaren mamua. Jaunaren 1609ko urtean, Pierre De Lancre inkisidoreak, d'Amou eta Urtubiako jaunek eskatuta, sorgin epaiketa eta erreketeta oldeari hasiera eman zion Lapurdiko kostaldea».
- Munarriz, Juan Miguel, *Euskararen genesiaz* (Pamiela, 2019). Ez fikzioa  
«Lan honen helburua euskararen jatorria ikertzen saiatzea zen. [...] Hizkuntza-egocera desberdinak, garaiak eta beste hainbat berri jaso eta aztertu ahal izan ziren, hainbat non, jatorriaren bilaketak hizkuntzaren genesian barnatzera bideratu baitzuen ikerketa. [...] Emaitza hizkuntzaren garabideari buruzko hipotesia da, euskararen genesiarena, alegia».
- Ondarra Erdozia, Jesús, *Bakaikuko leku-izenenez hausnarrean* (Pamiela, 2019). Ez fikzioa  
«Lan honen egilearen asmoa bere belaunaldira bizirik etorri diren toponimo guztiak biltzea izan da [...].  
Artxiboak arakatu, batik bat Nafarroako Artxibo Orokorreko dokumentuak XVI. mendetik hasita, lekuetan oinez ibiliz, lekuen geografia eta historia –izenen historia (aldaerak)– aztertuz, leku-izenen bilakabidea eta esanahia zehaztu nahi izan da».
- Perurena, Patziku, *Bordarien sorrera eta bilakaera Leitzan eta Areson (1427-1925)*, (Pamiela, 2019). Ez fikzioa  
«Gai honetaz egin den azterlanik zehatzena. [...] Leitzan bordarik zaharrena 1614 aldekoa da: Franki, Manuel Lasarte bertsolari haundia jaio zenekoa; eta 1726ko etxe erroldan 69 bordari ageri dira, nor bere bordan bizi dena familian; eta gezurra badi-rudi ere, lau ardiborda besterik ez. Holako beste mila datu zehatz, interes haundiko ikerlan honek jasotzen dizkizunak, 1427tik 1925era arte».
- Pla, Koldo, *80 pulsaciones / 80 taupada* (Cénlit, 2019). Poesia
- Rubio Iturria, Miren, *Txillardegí. Batasunaren pentsalaria* (Txalaparta, 2019). Ez fikzioa  
«XX. mendeko bigarren erdiko une erabakigarri guztietan Euskal Herriak behar izan duen pertsona izan da Txillardegí [...]. Pentsalari zein eragile, aitzindari izan baita

hainbat arlotan [...]. Euskal Herriaren beraren historia ezagutuko du irakurleak Txillardegiren pausoei segika».

- Sanz, Daniel, *Dena zekien gizona* (autoeditatua). Narratiba  
«Hiri gorria, amodioa, bakardade latza. Burutu gabeko ametsak, Icaroren ilusio hutsalak. Sisiforen harria. Benetako adiskidetasuna, zoriontasunerako gogo urratua. Negar atsekabetua, bortizkeria. Hainbat bizitza, bizitza bakarrean».
- Suarez, Castillo, *Irautera* (Elkar, 2019). Poesia  
«Izan zitekeen maitasun poema-liburu bat. Izan zitekeen etsipenari eginiko oda bat. Izan zitekeen naturaren irudikapen erromantiko bat. [...] Finean, poema-liburu osoa eta ederra ondu du Castillo Suarezek, indar handiko irudi eta ideiak biltzen dituena hasieratik bukaeraraino». Irati Majuelo, *Berria*, 2019/10/13.